

# "Hobe jarraitzea buru izatea baino"

**M**unduko pertsona aberatsena, planetako software-konpainia garrantzitsuenaren sortzailea eta lehendakaria, eta mundu osoko ordenagailu gehienek arau berberak jarraitu izanaren arduraduna, benetako berritzailea al da?



Bill Gates, Microsoft Corporation presidentea.

Bill Gates-en irudia beti, bere apustua egiteko beste jokalariek zer egiten duten zain dagoen jokalaria paziente batekin lotua dago. Umemokoa zenean, informatikan murgildu zenetik, ekintza guztien aurrean, hobe dela horiek jarraitzea buru izatea baino aldarrikatzen duen filosofiak markatu ditu. Errentagarriagoa da berritzaileei zoriona eskuratzen uztea eta, ondoren, markatzen duten bidea jarraitzea. Era horretan ibilbidea lasaigo eta porrotik gabe egingo da. Hori egin du beti Microsoft-eko jabeak; une egokian toki aproposan egotea, alegia.

William Henry Gates III, 1955eko urriaren 28an jaio zen Seattle-n (Ameriketako Estatu Batuak), familia aberats batean. Lakeside-ko Eskola eta Harvard-eko Unibertsitatea (1973-1977) bezalako ikastetxe garrantzitsutan ikasi zuen, herrialde industrializatuetako bizitzan informatika garrantzia hartzen hasi zen urteetan. Karrera ikasten ari zen bitartean, Paul Allen lagun minarekin batera, enpresa eta administrazio publikoetarako kudeaketa-softwarea egiteko talde txiki bat osatu zuen. 1975ean Albuquerque-ra (Nuevo México) joan ziren, MITS konpainiari lehen mikroordenagailuan -Altair 8.800- erabili ahal izateko programak hornit-

zen lan egiteko. John Kemeny eta Thomas Kurtz ek 1964. urtean asmatutako Basic hizkuntza eta Altair-eko hardwarea bateratzeko ikuspegia izan zuen Gates-ek. Besteek zabaldutako bidearen "jarraitzaile" bezala, hau izan zen bere lehen arrakasta.

Hurrengo urtean Gates eta Allen-ek euren enpresa sortu zuten, Microsoft Corporation, Gates lehendakari eta Allen zuzendari nagusi bezala. Mikroordenagailu berrietarako programak egin eta enpresa fabrikatzaileei, eurek egin izan balute baino merkeago eskaintzen zieten. Horretan zegoen negozioa.



Hiru urte geroago, enpresa bere lekua egiten hasi zen eta Gates-ek bere jaioterrira eramatea erabaki zuen. Garai horretan, enpresaburu gaztea negoziazio-estrategian gauzak ondo egiten hasi ziren. 1980. urtean IBMrekin akordio batera heldu zen, enpresa honen ordenagailu pertsonal berrietara egokitutako sistema eragilea egiteko, hots, MS DOS. Sistema hau, 1981. urtetik aurrera, marka horretako ordenagailu guztietan instalatzen hasi ziren. Beranduago IBM-PC sistema, gainerako marken ordenagailu "bateragarriek" imitatzen hasi, eta Microsoft-eko DOS, aplikazio zehatzeko programa guztiak euskarri bezala erabiltzen hasi ziren. Microsoft-ek nola sortu zuen MS-DOS? Seattle Computer Products izeneko konpainia bati Q-DOS sistema erosi zion, eta PCtara egokitu zuen, besterik ez.

Laurogeiko hamarkadaren erdialdera, Gates-ek informatika pertsonalean beste aurrerapauso handia eman zuen sagua sartuz. Hala, DOSen lekua hartzeko interfaze grafiko berria lantzen hasi zen: Windows. Baina, ideia nondik atera zuen?. Apple enpresak 1984an Macintosh atera zuen, etxerako ordenagailua, oso itxura erakargarriarekin, DOS sistemaren kal-

Bill Gates-en irudia beti, bere apustua egiteko beste jokalariek zer egiten duten zain dagoen jokalaria paziente batekin lotua dago.

terako. 1990. urtean, Microsoft-ek Apple enpresaren leiho-sistema hobetu zuen eta Microsoft Windows 3.0 izena jarri zion. Microsoft lehen postura eraman zuen aurrekaririk gabeko arrakasta harrigarria lortu zuen.

1986. urtean, Microsoft Burtsan hasi zenean, akzioak oso altu kotizatu ziren, Bill Gates Ameriketako Estatu Batuetako pertsona aberatsena bilakatu zen. Orduz geroztik, negozioa gero eta handiagoa egin da, eta Microsoft-ek softwarearen merkatuan monopolio birtuala du. Gates-ek, asmatuta zeuden aplikazio horiek bere filosofiara egokitzeko trebetasuna izan du. Word ez al dator WordPerfect-etik? Excel ez al da Lotus 123ren bertsio bat? Access ez al dago Dbase-ekin lotuta? Baina negozioak modu horretan ulertzeko garaian, gauza aipagarriena Internet Explorer da. Microsoft-ek, azken finean nabigatzaile erabiliena bilakatu den programaren lizentzia Spyglass izeneko konpainiari erosi zion, Netscapek, eremu honetan Microsoften ustezko monopolioaren aurka borrokatzeko ahalegin legalak egin arren.

Melinda French-ekin ezkondu eta hiru seme-alabekin, ikastun-aurpegia aldatzen ez zaion informatikazale porrokatuak, etxe bakoitzean eta lanpostu bakoitzean ordenagailu pertsonal bat sartzeko ametsa bete du, eta teknologiaren tronua lortu du. Leku hori, etorkizuna ikusita, besteek zabalduzako bideak ahalik eta ondoen aprobetxatzen zekienarentzat gordea zegoen.

1986. urtean, Microsoft Burtsan hasi zenean, akzioak oso altu kotizatu ziren, Bill Gates Ameriketako Estatu Batuetako pertsona aberatsena bilakatu zen.

